

Zergaitik hain banderizoak!

Deia, 1977-09-13.

Banderizokeria ez da euskaldunak asmatua.

Baina gauza on batzu pasatzen utzi ditugu, eta anai arteko burruka bide hau oso gure egin dugu euskaldunok.

Eta aspaldidanik.

Arrasatear zen Garibai-k XVI gizaldian uste izan zuena ez dugu gaur guk onhartuko; honentzat, anai arteko borroka hoiek, Jainkoaren zigor hutsa ziren.

Jainkoa maizegi sartzen dugu gizonen ahulkeri eta ustelkerietan.

Erdi Haroko borroka izugarri hura jauntxoak montatua izan zen goitik behera, ia nork gehiago agindu, nork aberastasun gehiago pilatu, eta hiltzen ziren gehienak, jauntxoei zerbitu nahi edo behar zietenak ziren.

Eta orduan, dagoaneko, ba zegoen Euzkadi.

XVI gizaldian, Nafarroara indarrez sartu eta laster. Garibai-k honela adierazten du borroka hoiien lurraldea: "de Ebro a la Mar".

Bi borroka genituen batean:

Oñaztarrak eta Ganboatarrak bata bestearen aurka batetik, eta Agramontar eta Beamtarrak elkar hiltzen bestetik. XIII gizaldirako bizi-bizi (eta hilez bazterrak betetzen) ari ziren, eta XIV eta XV, eta leku batzutan XVIean ere gogor erasoten zioten bata besteari.

Orduan ere ba zen borroka hoietaz kezkatzen zena.

Batzar Nagusiek ahaleginak egiten zituzten, baina alferrik; eraginak sakonak eta jokoak aberatsak ziran, noski.

Eta, nora joko soluziobide, eta Gaztela-ra.

Zer nahi zuen Castillak hauxe baino, euskaldunen arbitro izan!

Gaur, XX gizaldiaren hiru laurden igaroak direnean, XXIaren atean gaudela esan genezake, eta borroka honek ez du Euskalherrian garai hartako esangura berdina, noski. Gaur, Jainkoa, nahiko baztertua dago, politizazio ilun batek uxatu du asko gure artetik, eta Garibai-k ezin aitatu zezakeen gaur gure herriaren zigor-eragile bezala; orduko jauntxokeriak ere ez du gure artean gaur justifikabiderik, eta talde batzu, kupirik gabeko klase borroka huts bezala planteatu nahi dute.

Gaur ba dugu gure aurrean, mundu guzian bezala, langileriaren arazo garrantzitsu bat.

Hau, egia da.

Baina ba dugu, une berean, eta garaienean behar bada, herritasunezko beste larri bat, eta honen bidez bestea konpontzeko bide egokia dela ematen du. Behintzat, ez dira aurkako.

Nola nahi, batekoak eta bestekoak ezin dugu Erdi Haroan bezala jokatu.

Orduko itxukeriak zerbait erakutsi behar liguke: arbitrajea beste baten eskuan uztea baino egokiagoa dela guk gure artekoak geok hitzegin eta aztertu eta erabakitzea; herritasuna eta langileriaren justizi bideak, eta biek dituzten loturak.

Baina ez borroka bizi-neurrigabeen.

Bestela, lehen gertatu zen bezala, arbitroaren eskuetan geratuko gara.